



INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA San (Izfe SA) “ARLOKO ARDURADUNA: IKT ZERBITZUAK” LANPOSTUA BETETZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- HAUTAKETA PROZESUAN ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO HAUTAGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA
- AZTERKETAK EGITEKO DEIALDIARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Goian aipaturiko Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta haiek Deialdiaren Oinarrien arabera aztertu ondoren, Hautatze Batzordeak,

ERABAKI DU

Lehenengo.- Hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartzea eta argitaratzea, hautagaitza bakoitzaren behin-behineko egoeraren informazioa emanda (1. ERANSKINA).

Bederatzigarren oinarriaren arabera, eskaera bakoitzari esleitutako kodearen bidez adierazten da hautagaien nortasuna. Zerrenda argitaratu aurretik, pertsona interesdun bakoitzari gogorarazi/jakinarazi zaio kode hori, bere eskaeran adierazitako posta elektronikoaren bidez. Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan OTEIC taldearekin izfe2020@oteic.com helbidean edo 943316869 telefono zenbakian.

Bigarren.- Aipaturiko zerrenda horretatik kanpo geratu diren pertsonak 3 laneguneko epea izango dute, zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, kanpoan uzteko arrazoi izan diren okerrak edo ez egiteak zuzentzeko edo egokitze hartzen dituzten alegazioak planteatzeko (2020ko urriaren 1etik 5era). Horretarako, alegazio orri bat egongo da eskuragarri IZFE, Saren web orrian.

Aurkezteko bidea: Posta elektronikoaren bidez izfe2020@oteic.com helbidera, 2020ko urriaren 5aren 15:00ak arte.

Behin-behineko zerrenda behin betiko bilakatuko da alegaziorik ez bada aurkezten. Alegazioak aurkezten badira, haiek onartu edo gaitzetsi egingo dira, hala badagokio, behin betiko zerrenda onartuko duen beste ebazpen baten bidez, eta aurrekoaren modu berdinean argitaratuko da hori ere.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu diren pertsonak, jarritako epean alegazioa aurkeztu dutenak, badaezpada ere azterketetara aurkeztu ahal izango dira, planteatutako alegazioa data horretarako ez bada erabaki.



Hirugarren.- Azterketak egiteko Deialdiari buruzko informazioa:

Onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendaren argitalpenarekin batera argitaratuko da ondoko azterketa hauek egiteko deialdia:

- **Azterketak:** 1. FASEA - Gaitasunen analisisa eta/edo ezagutzen analisisa eta 2. FASEA - Elkarrizketa/k eta Analisi Pertsonala eta Konpetentziala.
- **Lekua:** OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Erakina, 1. Solairua - 20018 Donostia.
- **Eguna eta ordua:** Probak urriaren 13ko astean izango dira ziur aski, arratsaldez, argitaratuko den banakako deialdiaren arabera.

Gogorarazten da deialdiarekin eta hautatze prozesuarekin loturiko informazio guztia, azterketetara joateko deialdiak barne (gutxienez 72 ordu lehenago egingo dira horiek), emaitzen argitalpena eta abar, bide honetatik emango dira: www.izfe.eus (lanpostu deialdiak atalean).

Stua. Hautatze Batzordea
Donostian, 2020ko irailaren 30ean

ANEXO 1:

Arloko Arduraduna: IKT Zerbitzuak hautatzeko prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

IDENTIFIKAZIO KODEA	BEHIN-BEHINEKO EGOERA	KODEA
29488	BAZTERTUA	1
29533	BAZTERTUA	1
29622	BAZTERTUA	1
29730	ONARTU BALDINTZATUA	2
29736	BAZTERTUA	1
29779	BAZTERTUA	1
29785	BAZTERTUA	1
29912	BAZTERTUA	1
29915	ONARTU BALDINTZATUA	2
29916	BAZTERTUA	1
29921	BAZTERTUA	1
29924	BAZTERTUA	1
29941	BAZTERTUA	1
29958	BAZTERTUA	1
29966	ONARTU BALDINTZATUA	2
29973	BAZTERTUA	1
29985	BAZTERTUA	1
30000	BAZTERTUA	1
30004	BAZTERTUA	1
30005	BAZTERTUA	1
30008	BAZTERTUA	1
30009	BAZTERTUA	1
30010	BAZTERTUA	1
30012	BAZTERTUA	1
30013	BAZTERTUA	1
30015	BAZTERTUA	1
30020	BAZTERTUA	1
30025	BAZTERTUA	1

EGOERAREN XEHETASUNA:

- (1) Ez du bete/egiaztatu bigarren oinarriko d atalean eskatutako Esperientzia profesionalaren baldintza. Eskatu eta onartu daitekeen dokumentazio frogagarrian ondorioztatu behar dira erantzukizunaren edukia eta maila, bai eta frogatutako esperientzia profesionalaren iraupen osoa ere, eta lortu nahi den lanpostuarekin loturik egon behar du betiere.
- (2) Ez du egiaztatu euskara ezagutzaren C1 mailako edo homologagarriaren ziurtagiri ofiziala edo, hala behar badu, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria.



Horrenbestez, bigarren oinarriko e) atalean eskatzen den euskara ezagutzaren baldintza egiaztatu behar du, HABEren irakaskuntza mailen arabera erabiltzaile gaitua izatea. Arlo horretan gaitasuna duen erakunde batek (euskaltegiak) egiaztatu behar du alderdi hori. OTEIC Taldea hautagaiekin harremanetan jarriko da proba egitera joan daitezenei egiteko.

OHARRA:

Behin-behineko zerrendaren arabera baztertutako hautagaiei (1. egoera), baldin eta, alegazioa aurkeztu eta onartzearen ondorioz, onartu baldintzatua egoerara iristen badira (2. egoera), eta bigarren oinarriko e) atalean eskatutako euskara ezagutzaren baldintza betetzen dutela egiaztatu behar badute oinarri horretan aurreikusitako proba eginda, hautatze prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratu baino lehen deituko zaie proba hori egin dezaten.